



Notaria establezterako soilik.
(Para uso exclusivo notarial)

B 25027968



GIPUZKOAKO PARKETXE SAREA FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK

I. TITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Eraketa, izena eta iraupena

GIPUZKOAKO PARKETXE SAREA Fundazioa izenpean fundazio bat eratzen da 2016ko ekairan 2ko 9/2016 Legearen eta indarrean dauden gainerako arauzko xedapenen arabera.

GIPUZKOAKO PARKETXE SAREA Fundazioa irabazi asmorik gabe eratutako erakunde bat da eta, fundatzaileen borondatez, bere ondarea modu iraunkorrean interes orokorren helburuetara xedatzen du, estatutu hauen 3. artikuluan azaltzen den moduan.

2. artikulua.- Araubide juridikoa, izena eta gaitasun juridikoa

Fundazioak izatera juridiko propioa eta independentea du eraketa eskritura Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatu zenetik aurrera eta erabateko gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna izango ditu, mugapen bakarrik izango direlarik eraketa ekitaldian fundatzaileek borondatean adierazpenean ezarritakoak eta estatutu hauetan eta aplikagarri diren lege xedapenetan, bereziki 2016ko ekainaren 2ko 9/2016 Legea (Euskal Herriko Fundazioena) ezarritakoak.

Horrenbestez, eta Babesletzari egin beharreko jakinarazpenak eragotzi gabe, aukera izango du era guztietako ondasun higigarri edo higieziak eta eskubideak erosteko, gordetzeko, edukitzeko, erabiltzeko, edozein bide erabilita, besterentzeko eta grabatzeko; egintza edo kontratu mota oro egiteko; malleguak jaso eta itzultzeko; eta administrazio bidea edo auzibidea onartzeko edo haletara jotzeko, Auzitegi, Epaitegi eta erakunde publiko eta pribatuaren aurrean ekintza eta salbuespen mota oro gauzatuz, ordenamendu juridikoan xedatutakoa betez.

3. artikulua.- Fundazioaren xedeak

Fundazioaren helburua da Gipuzkoako parke naturalen kudeaketa integratua egitea. Helburu zabal horren arloan, jardura garrantzitsu eta berehalakoenak honako hauek izango dira:

- 1) Fundazioak Gipuzkoako Parketxeen Sarea sortu, sustatu eta zabalduko du irizpide homogeneotan oinarrituta kudeatzeko.

- 2) Gipuzkoako Parkeetxeen Sarearen kudeaketa integratuz eta dinamizazioaz arduratuko da.
- 3) Parkeetxeen Sarearen bitartez, Fundazioak ingurumen heziketa, natura ingurunearen ezagutza eta ingurumenarekiko errespetuzko balioak sustatuko ditu herritarren artean, oro har, nahiz gipuzkoarren artean bereziki.
- 4) Halaber, Parkeetxeen Sarearen bitartez, Fundazioak naturarekin lotutako aisialdi, boluntario eta turismo jarduerak, natura ingurunearekin bat eginda gauzatzen diren jolas-jarduerak sustatu eta bultzatuko ditu.
- 5) Betiere, Fundazioak Gipuzkoako parke naturalen egoera eta beharrak ezagutzeko eta irakaspen ballagarriak lortzeko balioko duten azterketa edo ikerketa proiektuak egingo ditu.
- 6) Era berean, aurreko paragrafoetan adierazitako balioreak sustatzeko, Fundazioak sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak bultzatuko du. Bereiziki, ekimen zehatzetan parte hartu ahal izango du, ekimen horiek arrakastatsuak izaten lagun dezaketen eragile publiko nahiz pribatuaren parte hartzea bultzatuz.
- 7) Oro har, Fundazioak Gipuzkoako Parke Naturalen Sarea, zuzenean edo zeharka, sustatzen eta hobetzen lagun dezakeen ekimen mota oro gauzatu ahal izango du.

Fundazioaren jarduerak ez ditu eragotziko bertan parte hartzen duten administrazio publikoen eskumena, ezta fundazioan sartzen diren gainerako pertsona fisiko eta juridikoen xede eta helburu propioak ere.

4. artikulua.- Xedeak gauzatzea

Fundazioak egoki irizten duen moduan gauzatu ahal izango ditu bere xedeak, beste entitate eta erakunde batzuetan parte hartzea barne; eta mugapen bakarrak izango dira eraketa eskrituratik, estatutu hauetatik eta, betiere, legeetatik eratorritakoak.

5. artikulua.- Fundazioaren helbidea

Fundazioaren helbidea Donostiako Gipuzkoa plaza z.g. izango da (Foru Jauregia). Patronatuak askatasun osoz erabaki dezake Fundazioaren helbidea aldatzea eta, hala eginez gero, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroari jakinarazi beharko dio. Halaber, Patronatuak eskumena izango du fundazioaren xedean betetzeko sortzen diren beharren arabera ezar daitezkeen establezimendu, ordezkaritza edo bulegoen helbideak finkatzeko.

Gipuzkoako Foruak

6. artikulua.- Lurakide eremua

Fundazioak, nagusiki, Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatuko ditu bere jarduerak, alabaina, bere helburuak hobeto bete ahal izateko, aukera izango du mundu osoan harremanak ezartzeko edo jarduteko.

7. artikulua.- Onuradunak

Fundazioaren jardueren onuradun izango dira pertsona talde zehaztugabeak; bereziki, entitate soziologiko, kultural eta politiko gisa Euskal Herria bezala ezagutzen den horretan biltzen direnak.

Fundazioak bere prestazioak sekula ezin izango die eman fundazioaren sortzaileei edo patronatuko kideei edo horien guztien ezkontideei edo haiekin antzeko harreman afektiboak dutenai edo haien laugarren gradura bitarteko ahalduei -- laugarrena baine --; ez eta prestazio horiek interes orokorreko helburuak ez dituzten pertsona juridiko berezientzat badira.

Fundazioak ematen dituen zerbitzuengatik diru kopuruaren bat eskatzen badie bere onuradunei, dagokion kopuruaren ordainketaren arabera bakarrik zehaztuko ditu onuradunak. Hala ere, Fundazioaren izaera dela-eta onuradunen kopurua mugatu behar bada, Fundazioaren Patronatuak hautatuko ditu onuradunak eta orabaki ezeztatzena izango da; horretarako kontuan hartuko ditu hautagaien merezimenduak, beharrak, gaitasun ekonomikoa eta aprobetxamendu aukerak edo bestelako ezaugarri objektiboak. Nolanahi ere, onura horiek eman aurretik inork ezin du, ez bakarka ezta taldean ere, onura horien gozamenari alegatu Fundazioaren edo bere Patronatuaren aurrean, ezta pertsona jakin batzuenak direnik ere esan.

8.- artikulua.- Jarduera eta funtzionamendu printzipioak

Fundazioak printzipio haiek izango ditu gidari bere jardueran:

a) Publikotasuna eta gardentasuna. Fundazioaren helburu eta jarduerari buruzko informazio nahikoa emango du, herritarrak, oro har, eta baitzko onuradunek haren berri izan dezaten.

b) Inpartzialtasuna eta diskriminaziorik eza onuradunak zehazterakoan, baita jarduerak eta prestazioak zehazterakoan ere.

c) Jarduteko jarraibideen sustapena, jokabide-kodeak eta funtzionamendurako jardunbide egokiak sortuz.

d) Patronatuko kideen zerbitzu-izpirituaren sustapena, baita interes propio eta partikularren aurrean fundazioaren interesak lehenesteara ere.

e) Lankidetzaren leiala eta etengabekoa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesleztarekin.

f) Fundazioaren ondarea eta errentak benetan fundazioaren helburuetarako erabili daitezkeen defendatu eta babestea, fundazioaren estatutuetan eta indarrean dagoen araudian aurreikusitakoarekin bat etorrita.

g) Genero-berdintasuna.

Fundazioaren antolaketa, funtzionamendua eta erabakiak hartzeko araubidea estatutuetan ezarritakoarekin bat etorriko da, eta, hala badagokio, patronatuak onetsitako barne-araubideko arauekin.

II. TITULUA PATRONATUA

1. kapitulua. Osaketa eta eskumenak.

9. artikulua.- Patronatua

Patronatua Fundazioaren gobernu, administrazio eta ordezkaritza organo gorenari da eta bere esku izango ditu fundazioaren xedeak betetzeko beharrezkoak diren kudeaketaren zuzendaritzako eta kontrolerako eskumenak. Hain zuzen ere, Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak administratuko ditu.

10. artikulua.- Osaketa eta karguaren iraupena

Patronatua gubiernez hiru (3) kidez eta gehienez ere hamabi (12) kidez osatuta egongo da.

Patrono kargua mugagabea izango da.

11. artikulua.- Patronoen izendapena eta kargu-uztea eta bakanteak betetzea

Lehenengo patronoa fundatzaileek izendatuko dute eraketa eskrituran. Patronatuko hurrengoko kideak, jarraian zehazten denaren arabera izendatuko dira.

a) Hamar (10) kide ondoren zehazten diren lurraldeko herri administrazioek izendatuko dituzte:

- Bost (5) Parke Naturalen gaineko eskumena duen Gipuzkoako Foru Aldundiko departamenduak izendatuko ditu. Hauetako bostetatik, ezinbestekoa da, bat, aipatutako Departamenduko Foru Diputatua izatea eta bestea, parke naturalen gaineko eskumena duen saileko zuzendari nagusia izatea.



Notaria erabilerrazako bultik.
Para uso exclusivo notarial.

25027966

Ginuzkoako Parkebeak

- Beste bat (1) OIartzungo Udalak izendatuko du.
- Beste bat (1) Ataungo Udalak izendatuko du.
- Beste bat (1) Aialko Udalak izendatuko du.
- Beste bat (1) Oñatiko Udalak izendatuko du.
- Beste bat (1) Zegamako Udalak izendatuko du.

b) Eia falta diren beste bi (2) patronoak Patronatuaren akordioz izendatuko dira, Patronatuko lehendakariaren ekimenez eta berek proposatuta, Patronatuak erabakitzen dituen izendapenak fundazioaren xedeetara ekarpen pertsonal edo ekonomiko nabarmena eta adierazgarria egin dutenen aldekoak izango dira, Ondorio horietarako, ekarpen nabarmen eta adierazgarritzat joko dira estatutu huen 44. Artikuluan aurreikuste den "entitate babesle" izatera duten egindakoak.

Patrono izendatutakoek berariaz onartu edo uko egin behariko dute kargu hori, Legaren 16. artikuluan aurreikusitako formuletakoren bat erabiliz. Onarpena Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan jasota geratuko da.

Izendatutako kargu publiko edo pribatu baten titular bada, bere ordezkari boteko duen beste pertsona baten esku utzi ahal izango du. Eskuordetza hori iraunkorra bada, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan jaso beharko da.

Patronatuko kideak izendatu zituen entitate beraren erabakiz kendu ahal izango dira kargutik, baina Legaren 20. artikuluan zehaztutako arrazoietakoren batengatik ere. Bereziki, eraketa eskrituran izendatutako Patronatuko kideak Fundazioaren Patronatuak kargugabetu ahal izango ditu.

Ondoren zehaztuko diren arrazoietakoren batengatik gertatzen diren bakanteak edo gobernu organoko kideren bat ordezkari edo kargugabetzea eragiten duen arrazoiaren batengatik gertatutakoak prozedura bera erabiliz beteko dira, eta bakante egoera ezingo da 6 hilabete baino gehiago luzatu. Bakanteak eragin ditzaketen arrazoiak dira: heriotza, ezgaitasuna, gaitasun gabetzea, heriotza adierazpena, bazterketa edo bateraezintasuna, agintaldia iraungitzea, uko egitea edo kargutik kentzea.

Patronatuak hartzen dituen erabakiak baliozkoak izan daitezen, patronatuko kideek estatutu hauetako 10. Artikuluan zehazten den gutxieneko kide kopuruekin mantendu beharko dute aipatutako organoa.

Gobernu organoko kideen ordezkapena, kargu uztea eta kargu gabetzea Fundazioen Erregistroan jasoko da.

12. artikulua.- Karguaren doakotasuna

Patronatuko kideek doan beteko dute beren kargua. Hala eta guztiz ere, dagozkien zereginetan sortu zaizkien eta behar bezala justifikatzen dituzten gastuak berreskuratzeko aukera izango dute.

Fundazioaren sortzaileek kontrakorik zehaztu ez bazuten, Patronatuak erabaki dezake ordainsari bat ematea beren eginkizunei dagozkien zerbitzuez gain Fundazioan beste zerbitzu batzuk ematen dituzten kideei. Erabaki hori Babesleitzak baimendu beharko du hiru hilabeteko epean dute.

13. artikulua.- Fundazioaren lehendakaria

Fundazioaren lehendakaria parke naturalen gaineko eskumena duen Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuko foru diputatua izango da. Lehendakariak gobernu organo horren goreneko ordezkaritza izango du eta, fundazioko kide orori dagozkion eta estatutu hauetan berari esleitutako eskumenez gain, ondoren aipatzen diren eta mugatzaileak ez diren beste atribuzio hauek ere izango ditu:

- 1) Fundazioaren ekitaldi publiko eta pribatu guztien buru izatea.
- 2) Bere ekimenoz edo kideen seiren batek gutxienez eskatuta Patronatuaren bilera deitzea, eztabaidak zuzentzea eta hartzen diren erabakiak betearaztea.
- 3) Fundazioaren ordezkari izatea era guztietako harreman, ekitaldi eta kontratuetan estatuaren, autonomia erkidegoaren lurralde administrazioaren, probintziaren, udalaren, agintarien, administrazioko zentro eta bulegoen aurrean; auzitegien, epaitegien, korporazioen, organismoen, elkarten eta bankuen aurrean (Espainiako bankua eta banka ofiziala barne); mola guztietako pertsona juridiko eta partikularren, nazionalen eta atzerriarren aurrean, dagozkion eskubide, egintza eta salbuespen guztiak gauzatuz eta Fundaziolari dagozkion edo interesatzen zaizkien prozedura, espediente, erreklamazio eta epaiketetako izapide, instantzia, gorabehera eta errekurso guztiak betez. Horretarako lehendakariari, notario aurrean, ahalmonik handienak emango zaizkio.
- 4) Fundazioaren Patronatuak berariaz bere esku jar ditzakeen bestelako eskumenak eta atribuzioak.



Notaria erabiltzen duenak erabili
Para usar el Notario Notarial

B 25027965

Gipuzkoako Foru Aldundia

14. artikulua.- Lehendakariordea

Lehendakariorde izango da parke naturalen gaineko eskumena duen Gipuzkoako Foru Aldundiko zuzendaritza nagusia. Oro har, lehendakariordearen atribuzioak eta eskumenak Patronatuaren erabakiz onartuko dira kasu bakoitzerako. Aurrekoa eragotzi gabe, lehendakaria ez dagoenean edo gaixorik dagoenean lehendakariordeak ordezluko du eta hori frogatzeko nahikoa izango da bien adierazpena.

15. artikulua.- Idazkaria

Patronatuak bertako kideen artetik edo horietatik kanpo idazkari bat izendatu beharko du eta bere kargua izango du Fundazioaren lan administratiboen zuzendaritza, dokumentazioa zainduko du eta Akten Liburuan jasotzen diren bileren akta egingo du onartu ondoren eta lehendakariaren oniritzia jaso eta geru.

16. artikulua.- Diruzaina

Gipuzkoako Foru Aldundiak izendatutako kideen artetik Patronatuak diruzain bat izendatu ahal izango du eta Patronatuak berariaz aginduko dizkion zereginak izango ditu.

Honako hauek dira diruzainaren esku utzi daitezkeen zereginak:

- 1) Fundazioaren funtsak bilizea eta zaintzea.
- 2) Urteko kontua aurkeztea eta sinatzea.
- 3) Inbentarioen, kontuen eta aumekontuen liburuak eta Liburu Egunkaria eramatea.

17. artikulua.- Gerentea

Patronatuak gerente bat izendatu ahal izango du eta bere egitekoak izango dira Patronatuak hartutako akordioak beteaztea eta horien jarraipena egitea. Izendapenean besterik zenazten ez bada, Patronatuaren erabakiz gerenteak ondorengo oinarritzko zereginak beteko ditu:

- a) Patronatuak hartutako akordioak eta emandako jarraibideak beteaztea.
- b) Fundazioaren zerbitzuak zuzentzea, ezarritako xedeak lortzeko beharrezkoak izan daitezkeen antolamendu zereginak bere gain hartuta.
- c) Fundazioaren helburuen arabera proiektuak, azterlanak eta zerbitzuak kontratatzea.

- d) Fundazioak ekitaldi ekonomiko bakoitzean egin ditzakeen jarduera programak prestatzea, proposatzea eta, bidezko iritziz gero, zuzentzea, Patronatuak onartu ondoren.
- e) Fundazioaren instalazio, zerbitzu edo jarduera berriei buruzko proiektuak, eta lehendik daudenak zabaldu edo berritzekoak aurkezte, Patronatuak onartu ditzan.
- f) Beharrezko irizten diren lankidetz, laguntza eta erosketa kontratuak idaztea eta Patronatuari proposatzea.
- g) Zerbitzu jarduera guztien kontabilitate orokorra eta laguntzailea, eta ordaintzen eta kobrantzen kudeaketa antolatzea.
- h) Fundazioarentzat lanean ari diren pertsonen ordainsariak, egin behar zaizkien kontratuak, bereizketa, lan jardueren antolaketa eta lan erregimena Patronatuari proposatzea.
- i) Ordaintzak agintzea eta Fundazioaren banku-kontuak erabiltzea, Patronatuak berariaz finkatuko dituen mugapenekin.
- j) Patronatuak onartu ditzan, Fundazioaren urteko aurrekontuak eta horien likidazioa prestatzea eta aurkezte, Fundazioen Erregistroan aurkezteko.

Gerentearen izendapena mugagabea izango da, nolana ere, Patronatuak edozein momentutan kargutik kentzea erabaki dezake ebazpen arrazoitua emanez.

Gerenteak bere zereginak eraginkortasunez bete ahal izan ditzan, beharrezkoa duen notario-ahalordea jasoko du.

18. artikulua.- Fundazioarentzat lan egiten duten beste pertsona batzuk

Halaber, Patronatuak gobernu organeko kideren bati edo hirugarren batzuei agindu ahal izango die beste jarduera batzuk kudeatzea edo egitea Fundazioaren izenean, egiteko horiei dagokien ordainsaria emanez.

Bereziki, Patronatuak letlatu aholkulari bat izendatu ahal izango du eta bere egitekoak izango dira Fundazioari aholkularitza juridiko orokorra ematea, Patronatuak hartuko dituen akordioen kontrol juridikoa egitea eta idazkariari Patronatuaren Akta Liburua zaintzen eta eramaten laguntzea; horretarako Patronatuaren bileretara joan ahal izango da hark gonbidatuta.



Notaria erabilgarriko sortik,
Para uso exclusivo notarial

B 25027964

Capituluko Dekretuak

19. artikulua.- Patronatuaren eskumenak

Patronatuaren eskumenak Fundazioaren gobernuari dagokion guztira hartzen du eta, bereziki, ondorengo alderdi hauek:

- 1) Fundazioaren orientazioa markatzea bere helburuak hobeto betetzeko.
- 2) Edozein jatorriko ballabide ekonomiko eta finantzario guztiak administratzea.
- 3) Inbentarioa, egoeraren balantzea, emaitzen kontua, aurreko urteko memoria eta urteko kontuen ikidazioa onartzea.
- 4) Hurrengo urteko kontabilitate plana eta azalpen txostena onartzea.
- 5) Komenigarriak diren barne arauak onartzea.
- 6) Estatutu hauen 21. artikuluan aurreikusitako Batzorde Iraunkoroko kideak izendatzea eta kargutik kentzea.
- 7) Estatutu hauen 20. artikuluan aurreikusitako batzorde eskuordeak sortzea, kideak izendatzea eta haien eskumenak zehaztea, eta hurrengo artikuluan xedatutakoaren arabera ahalordetze orokorrak edo bereziak ematea.
- 8) Oro har, zuzendari, exekutibo eta aholkulari karguak izendatzea eta kargu gabetzea, eta Fundazioaren gainerako langile teknikoak, administratiboak, lan kontratupekoak eta mendeak kontratatzea.
- 9) Fundazioaren xedeak behar bezala betetzeko beharrezkoak diren egintza eta kontratu mota oro sinatzea eta onartzea, izanra zibilekoak nahiz merkataritza, lan, administrazio edo bestelako alorrekoak izan.
- 10) Goragoko erabakia beharrezkoa den gaitan, dagokien erakunde eskudunei proposamenak egitea.
- 11) Lankidetzak teknikoak eta langile kualifikatuak prestakuntzako programetan enpresen, entitateen, erakundeen edo partikularren partaidetza sustatzea, fondoak jarritz eta lankidetzak hitzarmenak sinatuz.
- 12) Fundazioarentzat komenigarritzat jotzen denean herentziak, lagapenak edo dohaintzak onartzea edo ukatzea, Babesletza jakinaraz gainez jarritz.
- 13) Fundazio estatutuak aldatzea, fundatzaileen borondatea hobeto betetzeko beharrezkoa izanez gero.
- 14) Halaber, legeak edo estatutu hauek Patronatuari esleitzen dizkion bestelako eskumenak edo zereginak.

20. artikulua.- Eskuordetzeak, ahalordetzeak eta batzorde eskuordeak

Patronatuak bere kideetako baten edo batzuen esku utzi ahal izango ditu bere ahalmen batzuk. Ezingo dira eskuordetu inolaz ere, honako gai hauei buruzko erabakiak.

- a) Urteko kontuen onespena.
- b) Jarduera-planaren onespena.
- c) Estatutuen aldaketa.
- d) Fundazioaren bat-egitea, bereizketa, eraldaketa, azkentzea eta likidazioa.
- e) Beste pertsona juridiko bat eratzeko egintzak, non eta egintza horiek helburuei zuzenean lotuta ez dauden.
- f) Beste pertsona juridiko batzuetako partaidetzak eskuratzeko edo saltzeko egintzak, baldin eta partaidetza horien zenbatekoa fundazioaren aktiboaren % 20 baino gehiago bada.
- g) Fundazioaren aktiboaren % 20 gainditzen duten ondasun edo eskubideak xedatzeko edozein egintza.
- h) Zuzkidura handitzea edo txikitzea.
- i) Aktibo eta pasibo guztien edo batzuen bat-egite, bereizketa edo lagapen orokorra.
- j) Sozietateak edo beste pertsona juridiko batzuk azkentzeko egintzak.
- k) Patronatuko kideen autokontratazioa, salbu eta jarduketara hori errepikatua bada eta babesletzak aurretik baimendu badu kasu berdinetarako.
- l) Erantzukizunpeko adierazpenak onartzea eta formalizatzea.

Aurreko paragrafoan adierazitako mugapenen barruan, Patronatuak batzorde eskuordeak eta betearazleak eratu ahal izango ditu kasu bakoltzean zehaztuko diren eskumenekin eta izenarekin; era berean, zeregin mankomunatuak edo solidarioak dituzten ahalorde orokorrak edo bereziak izendatu ahal izango ditu.

Eskuordetze eta ahalordetze orokorrak, auzietarako izan ezik, eta horien baliogabetzeak Fundazioen Erregistroan inskribatu beharko dira.



Notaria en el territorio de San Sebastián
Patrimonio exclusivo municipal

25027963


Notario Público
San Sebastián

21. artikulua.- Kontseilu Betezarale Iraunkorra

Batzordeak sortzea eragotzi gabe, Patronatuak gutxienez hiru kide eta gehienez bost izango dituen kontseilu beteazarale iraunkor bat sortu ahal izango du eta bertako kide izango dira, nahitaez, Patronatuko lehendakaria edo lehendakariordea, idazkaria eta, egonez gero, diruzaina.

Kontseilu hori, gutxienez, hiru hilatan behin elkartuko da eta, Patronatuaren eskuordaz, Fundazioaren jardura arrunta fiskalizatu eta kontrolatuko du, eta Patronatuak berariaz esleitzen dizkion bestelako zereginak egingo ditu. Kontseilu beteazarale iraunkorak Patronatuaren osoko bilkuretarako deia egin ahal izango du egoki irizten dion guztietan, kontseilariaren gehiengo soilak hartutako erabakiaren bidez.

22. artikulua.- Patronatuaren betebeharrak

Fundazioaren Patronatuko kideek ondorengo betebeharrak dituzte:

- a) Fundazioko xedeak zorrotz bete eta beteazaralea, Legean eta Fundazioaren estatutuetan xedatutakoaren arabera.
- b) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak administratzea eta horien produktibitatea bete-betean mantentzea, kudeatzailerik on baten irizpide ekonomiko-finantzarioak kontuan hartuta.
- c) Legezko ordezkari bati dagokion arretaz betetzea bere kargua.

23. artikulua.- Auto-kontratazio debekua

Patronatuko kideek edo haien ordezkariak Fundazioarekin ezin izango dute kontraturik egin, ez beren izenean ez hirugarren baten izenean, baldin eta Babesleak horretarako baimena ematen ez badu behintzat, ezarritako prozedurari jarraituz.

Fundazioaren helburuak ahalik eta hobekien lortzeko egingo dira kontratu horiek, interes gatazkarik sortu gabe eta merkatuko baldintzetan, Fundazioan kontratazioaren ardura duen pertsonak edo organoak aidez aurretik erabaki arazoak emanda, betiere.

24. artikulua.- Erantzukizuna

- 1) Patronatuko kideak erantzuleak dira Fundazioaren aurrean legeek zehaztutako moduan.

2) Erantzukizunetik salbuetsita galdituko dira erabakiaren kontra bozkatu dutenak, erabakia hartzen eta beteazten parte hartu ez, eta erabakiaren berririk ez zutela frogatzen dutenak: bai eta, erabakiaren berri izan arren, kaltea ekiditeko komeni zen guztia egin zutela edo, gutxienez, esanbidez aurka agertu zirela frogatzen dutenak orain.

3) Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira jurisdikzio arruntaren aurrean gobernu organoetarako erantzukizuna eskatzeko egintza eta horren gaineko epai irmoa.

4) Babesleak, bere ekimenoz edo interes legitimoa duenak eskatuta, erantzukizuneko ekintza hori gauzatu ahal izango du, Fundatzaileek ere gauzatu ahal izango dute erantzukizun hori Patronatuko kideen jardueraren fundazio helburuen kontrako edo haien kalterako denean.

2. kapituluak. Patronatuaren funtzionamendu arauak

25. artikulua.- Bane funtzionamendua

Patronatuak urteko ohiko bi (2) bilera egingo ditu gutxienez. Urteko lehenago sei hilabetekoaren barruan nahitaez elkartuko da aurreko urteko aurrekontuaren likidazioa, inbentarioa, aurreko ekitaldiko jardueren memoria eta egiteraren balantzea, eta emaitzen kontua onartzeko, estatutu hauetako 32. artikuluan aurreikusitako eran. Era berean, urteko laugarren hiruhilekoan, dagokion deialdia egin ondore, urteko kontua onartzeko da abenduaren 31. aurretik Babesleazari igortzeko.

Patronatuaren deialdiak idatziz egingo dira bilera eguna baino 10 egun lehenago gutxienez, larrialdiko kasuetan izan ezik, halakoetan epea 3 eguneko izan baitaiteke. Deialdiarekin batera, gobernu organoetarako kideen iradokizunak kontuan hartuta lehendakariak erabakitako gai zerronda erantsi beharko da.

Halaber, Kontseilu Iraunkorrak Patronatuaren bilera deialdia egin ahal izango du estatutu hauetako 21. artikuluan zehaztutako eran.

26. artikulua.- Eraketa eta erabakiak hartzea

Patronatua behar bezala eratuta galdituko da lehenengo deialdian kideen erdiak gehi bat (pertsonalki nahiz ordezkaritza bidez) bertaratzeko direnean. Patronaturako ordezkaritza eta botoa eskuordetzen badira, betiere, Patronatuko beste kide bati eskuordetuko zaizkio.

Aurreko paragrafoan adierazitako quoruma lortzen ez bada, Patronatua ordubete beranduago elkartuko da, eta bigarren bilera horretan nahikoa izango da hiru (3) kide gutxienez bertaratzeko, baldin eta lehendakaria edo lehendakariordea horien artean badaude.



Notaria erabilerarako soilik.
Procurador exclusivo notarial.

B 25027962



Aurriko paragrafoetan adierazitakoa alde batera utzita, Patronatuaren bilera dela eginda eta Patronatua behar bezala eratuta dagoela ulertuko da kide guztiak bertaratzon direnean eta bilera egitea aho-batez onartzen dutenean.
Erabakiak botoen gehiengo soilaz onartuko dira, ondorengo kasuetan izan ezik:

- 1) Bertaratutakoan bi herenen aldeko botoa beharko duen aldaketa, bat-egite, bereizketa eta azkentze akordioa.
- 2) Estatutu hauetan bozketa quorum diferentia ezarria duen beste edozein.

Lehendakariaren botoak gerta daitezkeen berdinketak hausteko balioko du.

Idazkariak Patronatuaren bilera bakoitzaren akta egingo du, eta bilera data eta eguna zehazteaz gain, bertaratutako kideak, eztabaida gaiak eta hartutako akordioen edukia jaso beharko ditu.

Ezartzen ahal izango da, organoak bideokonferentzia bidez edo komunikaziorako beste baliabide batzuen bitartez bildu ahal izatea, betiere bermatzen bada bilan zeinek parte hartzen duten identifikatzea, komunikazioa jarraitua izango dela, eztabaidetan parte hartu ahal izango dutela eta botoa eman ahal izango dutela. Edonola ere, bilera lehenakaria dagoen lekuan egin dela ulertzen da.

Serbuespen gisa, bilerarik egin gabe ere hartu ahal izango ditu erabakiak patronatuak, betiere informazio - eta boto - eskubideak bermatuta badaude, botoa jaso dela nonbait agerrarazten bada eta haren autentikotasuna bermatzen bada. Erabakia pertsona juridikoaren helbidean eta eman diren baliozko botoetatik azkena jasotako datan hartu dela ulertuko da.

III. TITULUA ONDAREA ETA ERREGIMEN EKONOMIKOA

1. kapitulua. Osaketa, administrazioa eta zaintza

27. artikulua.- Fundazioaren ondarea

Fundazioaren ondarea ekonomikoki balora daitekeen ondasun, eskubide eta betebeharrekin osatuko dute. Fundazioak, eratu ondoren eskuratzen direnak ere ondare horretan sartuko dira zuzkidurari, atxiki ala ez.

Ondare hori erabili eta administratzerakoan Fundazioak aplikagarri diren arauak beteko ditu, eta lortzen dituen emaitzak edo irabaziak bere xedearako erabiliko ditu, estatutu hauetan xedatutakoaren arabera.



Notaria erabiltzerako soilik.
Pasa oso erabiltzerako material.

B 25027961

Gipuzkoako Foruak

d) Gainerako ondasun higigariak Patronatuak zehaztuko duen eran zainduko dira.

Ondasun eta eskubide horiek guztiak Patronatuko idazkariaren esku dagoen Inbentarioen Liburuan zehaztuko dira eta, hark gainbegiratuta, ondasunak eta eskubideak identifikatzeko eta deskribatzeko beharrezkoak diren inguruabar guztiak jasoko dira.

2. kapitulua. Erregimen ekonomikoa

31. artikulua.- Ekitaldi ekonomikoa

Ekitaldi ekonomikoa urtebetekoa izango da eta urte naturalarekin bat etorriko da. Salbuespen modura, lehenengo ekitaldi ekonomikoa eraketa eskritura sinatzen denetik urte bereko abenduaren 31 bitartekoa izango da.

Fundazioak jarduerari plan bat prestatuko du ekitaldi ekonomiko bakoitzeko, eta bertan diru sarrerak eta gastuak jasoko dira modu orekatuan.

Plan hori, azalpen txostenarekin batera, Babesletzari aurkeztuko zaio onartu zen urteko azken hiruhilekoan.

32. artikulua.- Betebehar ekonomikoak eta kontabilitatekoak

Urteko kontuak onetsi eta hurrengo 30 egun naturaleko epearen barruan, Fundazioaren Patronatuak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroari bidaliko ditu urteko kontuak-behar bezala sinatuta-gordailutzeko. Eta kontu horiek bete egin beharko dituzte irabazi asmonk gabeko entitateei buruzko araudian xedatutako baldintzak.

Fundazioaren urteko kontuetan honakoak sartuko dira gutxienez: balantzea, emaitza kontua, memoria eta aurreko jarduketari planaren likidazioa. Fundazioak izango duen garrantzi ekonomikoa dela eta, urteko kontuei kanpoko ikuskapena egingo zaie, ikuskatzaileek egindako txostena Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko da.

Patronatuak Fundazioaren ondare, ekonomia eta finantza egoera jasoko duten inbentarioa, egoeraren balantzea eta emaitzen kontua prestatuko ditu, baita urtean zehar egindako jardueren eta ondarearen kudeaketa ekonomikoaren txostena ere. Fundazioaren helburuak eta lege aginduak bete direla jakinarazteko eta justifikatzeko aski dena. Aurreko urteko diru sarreraren eta gastuen aurrekontuaren likidazioa ere egingo du, horretarako, legeak agintzen duena betez.



Notaria erabilerarako soilik
Pantuso esklusibo notariatua

B 25027960


Gisela G. Barrena
Notaria

IV. TITULUA. ALDAKETA, BAT-EGITEA ETA IRAUNGIPENA.

36. artikulua.- Aldaketa

Fundazioaren Patronatuak estatutuak arrazoiz aldatzea erabaki dezake Fundazioaren helburuak hobeto betetzeko kononigamia baldin bada, eta sortzaileen berriazko debekurik ez badago. Aldatzeko erabakia hartzeko, gutxienez, bertaratutako kideen bi herenen aldeko botoa beharko da.

37. artikulua.- Bat-egitea

Era berean, Patronatuak erabaki dezake beste entitate batekin edo batzuekin bat-egitea, baldin eta fundazioaren helburuari behar bezala erantzuten bazaio. Erabakia arrazoiak azalduta hartuko da eta, gutxienez, bertaratutako kideen bi herenen aldeko botoa beharko da.

38.- artikulua.- Bereizketa

Fundazioaren zati bat bereizi ahal izango da edo fundazioa zatitu, beste fundazio bat edo batzuk sortzeko, edo aurretik sortuta dagoen beste fundazio bati edo batzuei eskualdatzeko, ondarea bananduta, baldin eta fundatzaileen horren kontrako borondatearik jasota ez badago, bereizitako fundazioaren helburuak hobeto beteiko direla justifikatzen bada eta fundazioaren bideragarritasun ekonomikoa arriskuan jarzen ez bada. Fundazioa bereizteko edo zatitzeko erabakia arrazoiak hartuko da, gutxienez, bertaratutako kideen bi herenen aldeko botoa beharko da.

39. artikulua.- Az kentzea

Fundazioa azkenduko da:

- a) Eratu zenean finkatutako helburua erabat betetzen denean.
- b) Fundazioaren helburua betetzea ezinezkoa denean, lege honetan estatutuen aldaketari eta fundazioen bat-egiteari eta bereizketari buruz xedatutakoaren arabera.
- c) Beste batekin bat-egiteak ondoño hori dakarrenean.
- d) Estatutuetan edo eratzeke egintzan ezarritako beste edozein arrazoi gertatzen denean.
- e) Legeek aurreikusitako beste edozein arrazoi gertatzen denean.

40. artikulua.- Iraungitzeko prozedura

Aurreko artikuluko a), b) eta d) puntuetan aurreikusten diren kasuetan, Fundazioa azkentzeko Patronatuaren erabakia eta Babesletzaren berrespena beharrezkoak izango dira.

Nolanahi ere, iraungitzeko erabakia arrazoitu egin beharko da eta ondare egoeraren eta likidazio programaren berri eman beharko da.

Gobernu organoaren erabakirik ez balego edo Babesletzak berretsiko ez baidu, Fundazioa iraungitzeko epailearen ebazpen arrazoitua beharko litzateke, Babesletzak nahiz fundazio organoak eskatu ahal izango duena.

Iraungitzeko erabakia edo, dagokion kasuan, epailearen ebazpen arrazoitua Fundazioen Erregistroan inskribatuko da.

41. artikulua.- Likidazioa

Fundazioen likidazioko prozesua patronatuak edo, Babesletzaren kontrolpean, gobernu-organo horrek izendatutako likidazio-batzorde batek eramango du aurrera, salbu eta, kasua hori bada, ebazpen judizial arrazoitu batek besterik ezartzen badu. Fundazioak bere nortasun juridikoa izaten jarraituko du prozesua amaitu arte, eta, epealdi horretan, "likidazioan" dagoen fundazio gisa identifikatu behar da.

Likidazioa egin eta gero geratu diren ondasun eta eskubideak fundatzaileek estatutuetan edota eratzeko aktan aurreikusi zuten hartara bideratuko dira.

V. TITULUA. BABESLETZA ETA FUNDAZIOEN ERREGISTROA

42. artikulua.- Babesletza

Fundazioa Euskal Herriko Fundazioen Babesletzaren tutoretza, aholkularitza eta kontrolpean gelditzen da, Euskal Herriko Fundazioen 2018ko ekainaren 2ko Legeak eta aplikagarria den gainerako legediak aurreikusitako moduan.

43. artikulua.- Fundazioen Erregistroa

Fundazioaren eraketa eta legearen arabera fundazioak behar dituen egintza edo negozio juridiko guztiena Euskal Herriko Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.



Notario en Abogado
Partes en el Notario

B 25027959



VI. TITULUA. FUNDAZIOAREN ERATZAILEEN, BABESLEEN ETA BESTELAKO LAGUNTZAILEEN ARAUBIDEA

44. artikulua.- Eratzaileak

Eratzaileak izango dira fundazio izaerako ekarpen ekonomikoren bat egiten duten eta fundazio eskritura sinatzen duten entitate publikoak edo pribatuak.

45. artikulua.- Entitate babesleak

Entitate babesleak dira Fundazioaren xedeak eta helburuak lortzen eta funtzionamendu gastuak ordaintzen laguntzeko konpromisoa hartzen dutenak, urteko kuota adierazgarria eta iraunkorra ordainduz.

Fundazioaren Patronatuari dagokio entitate babesleen izaera aitortzea eta, gertatzen denean, babesle izaeraren galera adieraztea.

46. artikulua.- Entitate laguntzaileak

Entitate laguntzaileak dira fundazioaren helburua lortzen lagun dezaketen jarduerak edo ekarpenak egiten dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak.

Entitate laguntzaile gisa atxikitzeko eskaerak Patronatuak onartu beharko ditu eta berak zehaztuko ditu laguntzaile horiei dagozkien eskubideak eta atribuzioak.

47. artikulua.- Ohorezko patronoak

Patronatuak Fundazioaren ohorezko patrono izenda ditzake fundazioaren helburua lortzeko ekarpen nabarmena egin duten edo egin dezaketen pertsona fisikoak edo juridikoak. Patronatuak ohorezko patronoen eskumenak eta atribuzioak onartuko ditu izendapenerako erabakian.

48.- artikulua.- Zehapen-araubidea

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Legean aurreikusitako zigor araubideari lotua dago Fundazioa.



Notaria enabilerako sifila,
Para uso exclusivo notarial.

B 25027955

- 1) La Fundación se ocupará de impulsar la creación, fomento y difusión de una Red de Parketxes de Gipuzkoa para su gestión con criterios homogéneos.
- 2) La Fundación llevará a cabo la gestión integral y dinamización de la Red de Parketxes de Gipuzkoa.
- 3) La Fundación, a través de dicha Red de Parketxes, fomentará la educación ambiental, el conocimiento del medio natural y la difusión de los valores propios de respeto al medio ambiente, tanto entre la ciudadanía en general como entre los gipuzkoanos y gipuzkoanas en particular.
- 4) Asimismo, la Fundación, a través de la Red de Parketxes, fomentará y promocionará las actividades de ocio, voluntariado y turismo ligado a la naturaleza y las actividades lúdicas en armonía con el medio natural.
- 5) En todo caso, la Fundación se encargará de realizar proyectos de estudio o investigación dirigidos a profundizar en el conocimiento de la situación y necesidades de los Parques Naturales de Gipuzkoa que permitan obtener enseñanzas de utilidad.
- 6) Asimismo, la Fundación promoverá la cooperación entre el sector público y el sector privado en el fomento de los valores señalados en los párrafos anteriores. En particular, podrá participar en iniciativas concretas, impulsando la incorporación de cuantos actores públicos o privados puedan contribuir al éxito de las mismas.
- 7) En general, la Fundación podrá llevar a cabo todo tipo de iniciativas que redunden directa o indirectamente en el fomento y mejora de la Red de Parques Naturales de Gipuzkoa.

La actuación de la Fundación se entenderá sin perjuicio de la competencia de las Administraciones Públicas participantes ni de los fines y objetivos propios del resto de personas jurídicas y físicas que se incorporan a la misma.

Artículo 4.- Desarrollo de los fines

Los fines fundacionales pueden ser desarrollados por la Fundación del modo que crea oportuno, incluida la participación en otras entidades y organizaciones, sin otras limitaciones que las que se deriven de la escritura fundacional, de los presentes Estatutos y, en todo caso, de las Leyes.



Notaría pública nº 111

Para uso exclusivo notarial

B 25027957

Artículo 8.- Principios de actuación y funcionamiento

La fundación se guía en su actuación por los siguientes principios:

- a) Publicidad y transparencia, dando información suficiente a sus fines y actividades para que sean conocidos por la población en general y sus eventuales personas beneficiarias.
- b) Imparcialidad y no discriminación en la determinación de las personas beneficiarias, así como de sus actividades y prestaciones.
- c) Promoción de directrices de actuación, mediante la creación de códigos de conducta y buenas prácticas de funcionamiento.
- d) Incentivación del espíritu de servicio de los miembros del patronato, así como de la priorización de los intereses de la fundación frente a los propios o particulares.
- e) Colaboración leal y permanente con el Protectorado de Fundaciones del País Vasco.
- f) Defensa y protección del efectivo cumplimiento de la obligación de destinar el patrimonio y rentas de la fundación a los fines fundacionales, de acuerdo con lo previsto en los estatutos de la fundación y en la normativa en vigor.
- g) Igualdad de género

La organización, funcionamiento y régimen de adopción de los acuerdos de la función se ajustará a lo establecido en sus estatutos y, en su caso, a las normas de régimen interno aprobadas por el patronato.

TÍTULO II. EL PATRONATO

Capítulo 1º. Composición y competencias.

Artículo 9.- El Patronato

El Patronato es el órgano supremo de gobierno, administración y representación de la Fundación y tendrá a su cargo todas aquellas facultades de dirección y control en la gestión que sean necesarias para la realización de los fines fundacionales. En concreto, administrará los bienes y derechos que integran el patrimonio de la Fundación.

